



Notaria erabilerarako soilik.

Para uso exclusivo notarial.

A 0564620

ITZA
O

MA
BAILA
A
L
Vasco

HIRUGARRENA: honen ondorioz, esandako eratze-eskritura ZUZENTZEN DU estatutuen 30., 41., 8., 9., 15., 31., 32., 36., 40. eta 42. artikuluak, partzialki, berridatziz hurrengo moduan: -----

"8. artikulua.- Patronatua: Fundazioen 12/1994 Legeko 11.3 artikuluan aurreikusten den aukerari jarraiki, Patronatuak honako kide hauek izango ditu:

- a) Hiru kide, Orereta Kultur Elkartetik. -----
- b) Kide bat, Haurtzaro Ikastola Koop.E.tik. -----

Pertsona juridikoen ordezkari diren pertsona fisikoen ordezkapena aipatutako pertsona juridikoen araudiek diotenaren arabera egingo da. -----

Patronatuak bere baitan hautatuko du Lehendakari bat. -----

9. artikulua.- Kideak izendatzea: Fundazioaren Patronatua osatzen duten bi erakundeek askatasunez izendatuko dituzte pertsona fisikoak, kasu bakoitzean erabil daitekeen bakoitzaren araudiaren arabera. -----

15. artikulua.- Patronatuaren eskuduntzak: hauek

dira Patronatuaren eskuduntzak: -----

a) Estatutuak onetsi eta aldatzea. -----

b) Antzeko helburuak dituzten beste erakundeekin harremanetan jartzea. -----

c) Finantzaketa eta sarrera-gastuen egoera onestea.

d) Fundazioaren urteko hezkuntza-programa onestea.

e) Era guztietako ondasunak eskuratu eta edukitzea, mota guztietako egintza eta kontratuak eginda. ----

f) Patronatuko kideen ordezkapena erabaki edo eragitea, horretarako arrazoirik balego. -----


g) Ikasleak onartzeko betekizunak onestea. -----

h) Sari, sarigarri edo laguntzak emateko erabakiak hartzea. -----

i) Sorrerako helburuak betetzen diren zaintzea. ---

j) Sorrerako helburuak egoki betetzeko beharrezko litatekeen beste edozein. -----

30. artikulua. Baliabideak: Fundazioak lortuko lituzkeen zeinahi motatako baliabide ekonomikoak sorrerako hezkuntza-helburuak betetzera bideratu behar dira Patronatuaren irizpideen arabera. Administrazio-gastuak ezingo dira, oro har, Fundazioak urtean kontzeptu guztiengatik izandako sarreraren %20 baino gehiago izan. Fundazioaren hezkuntza-helburua dela eta, ez dira administrazio-gastutzat joko ira-



36. artikulua.- Superabita: Fundazioak berezko di-
tuen nezkuntza-beharrak betetakoan ekitaldi bakoit-
zean gera daitekeen superabitarekin Erreserba Fondo
bat sortuko du Patronatuak egoki ikusten duen beza-
la. -----

40. artikulua.- Fundazioko langileak: Fundazioak bere sorrerako helburuak betetzeko beharrezko dituen langileak izango ditu, eta Patronatua izango da kopurua, kategoria, eginkizunak, soldatak eta bestelako baldintzak erabakiko dituenak. -----

41. artikulua. Onuradunak: Fundazioaren jarduera derrigorrezko hezkuntza bukatu duten ikasleei zuzenduko zaie, 16 eta 19 urte bitarteko gastei nagusiki. Fundazioaren hezkuntza-jardunera biltzeko ikasleek Fundazioak indarrean dagoen araudian oinarrituta jarritako betekizunak bete beharko dituzte.

42. artikulua. Fundazioaren zerbitzuak: Fundazioaren zerbitzu eta jarduerak bere Patronatuak arautuko ditu." -----

LAUGARRENA: "Oiertzo Batxilergo Ikastola Fundazioa"-ren proiektuko baliabidearen ekonomiatxostena agerleak ematen dit eta une honetan PROTOKORATZEN DUT. -----

EGILESPENA ETA BAIMENA

Legezko oharpe eta oharrak adierazten ditut. -----
Osotara neronek irakurria, ekitaldi bakarrean, agertutakoak (hala oharterazten bait diot) berez egiteko duen eskubideari uko egiten diolarik, berrespena eman eta sinatzen du. -----



Notaria erabilerarako soilik.

Para uso exclusivo notarial.

A 0564618

Eskritura honetan lau horrietan (A0563014, 0563015, 0563016, eta honelaxe honetan bertan azaltzen den - guztiz FEDE EMATEN DUT. -----

IZENPETU ETA ERRUBRIKATU: agerlea.- Zigilu, ikur, izenpe eta errubrika: PEDRO ANTONIO BARAIBAR. -----

ERANTSITA -----